

2002-2003 ikasturtia

1. unidadia: GORPUTZAREN
ATALAK

*Zure moduan / Zuk bezala
egingo dot...*

**Gorputzaren atalak, posturak eta
mobimentuak**

-ren moduan / -k bezala(koa)
(~~zure bezala(koa)~~)

-ko moduan (~~betike~~ bezala)

jantzi aditza (~~prakak jantzi naiz~~)

gehixago eta hobeto



gehixago eta hobeto

Zure moduan/Zuk bezala egingo dot...

Gorputzaren atalak, posturak eta mobimentuak
-ren moduan / -k bezala(koa) (~~zure bezala(koa)~~)
-ko moduan (~~betiko~~ bezala)
jantzi aditza (~~prakak jantzi naiz~~)

AURKIBIDEA



IRAKASLIARENDAKO MATERIALA

1- Helburuak	3
2- Bibliografia	4
3- Akatsen azalpena eta bertako eredu zuzenak	5



KLASIAN LANTZEKO BIDIAK

4- Hizkuntza-taillerra	6
Helburuak	6
4.1- Haur Hezkuntza	6
4.2- Lehen Hezkuntza	6
4.3- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	7
Ariketak	8



GURASUENDAKO MATERIALA

5- Guraso euskaldunak	20
6- Guraso erdaldunak	22



ERANSKIÑAK

7- Ariketen fitxak	24
8- Lexikua	29
9- Lexikuaren azalpena (Juan Martin Elexpurren hiztegia)	30



Oharra:

Ikasturte honetan gorputza izango da ardatza.

1. *ikastunidadeia: Gorputzaren atalak, posturak eta mobimentuak*
2. *ikastunidadeia: Ariketen ondorixuak, kolpe eta lesiñuak*
3. *ikastunidadeia: Ariketak egitteko moduak eta pertsonen ezaugarriak*

Hortaz, gorputzari lotutako lexikua, egitturak eta esamoldiak landuko dittugu, eta honetan agertzen diren akats ohikuenak.

1- Helburuak:

Gorputza eta honen adarrak ezagutu.

Hizkuntza-akatsak zuzendu (edadiaren arabera konturatu gabe ala horretaz jabetuta)

Ikaste-prozesu honetan gurasoak be parte hartzia

1.1- Edukizak:

- Lexikua:
 - ◆ Gorputzaren atalak:
 - ◆ Gorputzaren posturak:
 - ◆ Gorputzaren mobimentuak:
 - Ibilixan egittekuak:
 - Geldixan egittekuak:
 - Esku mobimentuak:
- Hizkuntza akatsak:
 - ◆ -ren moduan / -ko moduan / bezala (~~zure bezalakua~~)
 - ◆ aditz batzuen jokua:
 - heldu (heldu dotsat / jat / ~~heldu dot~~)
 - jantzi (prakak jantzi dittut / ~~prakak jantzi naiz~~)

Unidade didaktiko honetan proposatzen diren ariketak egokixak dira batera lantzeko euskeria eta heziketa fisikoko klasietan.

Aurreko unidadietan landutako hizkuntza akatsak bezalaxe, honetan landuko dittugunak oso hedatuta eta finkatuta dare. Hala ta be, ia egunero erabiltzen dittugunez, aukera asko izango dittugu eredu onak eskaintzeko.

Gogoratu nahi dogu, berriz be, txikixekin —haur hezkuntzakekin eta lehenengo ziklokekin— ez dagoela hizkuntza-ariketak egitterik; txikixak ez dittuztelako mezuaren formia eta edukixa bereizten, askotan edukixa eta ekintza bera bereizten ez dittuen bezalaxe. Txikixak helduon eredia barneratuko dabe.

Gaztetxuekin lantzeko, berriz, lanketa mota bat baiño gehixago eskaintzen dogu. Horretariko batzuk akatsa era kontzientian lantzeko prestatuta dare; beste batzuk eredu zuzenak eskaiñiko dittue, beste barik; eta ariketak eurak, ikasitako formak erabiltzeko aukerak emongo doskue.



Ariketak zikluen arabera sailkatuta dare. Hala ta be, sailkapen hori proposamena besterik ez da. Irakasliok dakizue, iñork baiño hobeto, zeintzuk diren zuen taldiendako ariketarik aproposenak.

Proposamen honetan gurasuen parte hartzia lortu nahi dogu, horretarako eskaintzen dira etxian umiekin batera egitteko ariketak. Horren osagarria izango da APATXI, Berrigararen gehigarria.

2- Bibliografixa:

2.1- Jolasak billatzeko:

- **Euskal Giroitze Barnetegiak.** Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritza, 1999.
Hemen herri-kirolak aurkituko ditugu: harri-jasotzen, sokatiria, toka, txinga-eruatea...
- **Jolasgarairako eta Aisialdirako Proposamenak.** Eibar guneko Hizkuntza Normalkuntza Proiektuak. Maillaka eta zikloka egitteko proposamenak.
- **Euskal Jolasen Bilduma.** (DK). Urtxintxa Eskola.

2.2- Kirolen gaiñian:

- **Entrenatzaile eta irakasleentzako fitxa didaktikoak.** Debarroko Euskara eta Kirol Zerbitzuak.
Fitxa didaktikuak dira, edadiaren arabera sailkatutako ariketak eta horren hurrenkera. Beroketa, saskibaloia, eskubaloia eta errugbiko fitxa didaktikuak dira.
 - *Atletismo eta futboleko fitxa didaktikoak.*
 - *Igeriketako fitxa didaktikoak.*
 - *Judoko fitxa didaktikoak.*
 - *Karateko fitxa didaktikoak.*
 - *Kirol alternatiboetako fitxa didaktikoak.*
 - *Teniseko fitxa didaktikoak.*
 - *Herri Kiroletako fitxa didaktikoak.*
 - *Gimnasia erritmikoko fitxa didaktikoak.*
 - *Malabaretako fitxa didaktikoak.*
 - *Aerobikako fitxa didaktikoak.*
 - *Prestakuntza fisikoko fitxa didaktikoak.*

Fitxa hauen inguruko informaziñua eta salmentia
Debagoieneko Mankomunitateko Kirol Zerbitzuan
(943 79 55 87) eta
Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzuan (943 77 91 67)

2.3- Gorputzaren atalak:

- **Giza gorputza. Altea, ikusteko hiztegiak.** Santillana, 1992.
Emakumezkuen gorputza ere badakar. Irudi ederrak, azalpen argiak.
- **Juul.** Gregje de Maeyer eta Koen Vanmechelen. Ikastolen Elkarte, 2000.
Oso liburu ederra baiña gordiña. Aproposa ikasliei laguntzeko trufaz eta isekaz hausnartzen.
Bertan dakar gaixa lantzeko proposamen didaktikuak.



3- Akatsaren azalpena eta bertako eredu zuzenak

3.1- -ren moduan / -ko moduan / bezala

(Zure bezala, betiko bezala, hemengo bezala)

Modu hitza izena da, deklinatu leikiena: *modua, moduak, moduari, moduaren...* Horregatik onartzen ditu **-ren** eta **-ko-z** osatutako izenlagunak:

Zure moduan, betiko moduan, hemengo moduan...

Bezala, berriz, ez da izena; ezin da deklinatu: *bezalak, bezalari, bezalaren, ...*

Horregatik ez du **-ren** eta **-ko-z** osatutako izenlagunik onartzen. Izan be, **-ren** eta **-ko** izenlagunak osatzeko atzizkiak dira.

Hortaz:

Nik zure moduan egingo dot.
Nik zuk bezala egingo dot. } ~~Zure bezala egingo dot~~

Horren modukua da.
Hori bezalakua da. } ~~Horren bezalakua da~~

Betiko moduan egin dabe.
Beti bezala egin dabe. } ~~Betiko bezala egin dabe~~

Nahaste honen jatorria da “modu” formaren erabilera —inguru honetan ohizkuena— bera “bezala” formari be emotia.

*zuk bezala
zu bezalakua
Beti bezala
Hemen bezala*

3.2- Heldu dotsat / Heldu dot

Helduixozu honi.

**Zergatik heldu
dostazu?**

Heldu aditzak adiera ugari dauzka eta gehixenetan “nor” motako adizkixekin erabiltzen da (*mugara heldu naiz, alkate izatera heldu zan, ez dakit horrela jarraitzen badogu zer helduko dan!, ...*) baiña “obatu” esanahixa hartzen dabenian, nor-nori-nork motako laguntzaillia hartzen dau:

Lepotik heldu zostan eta lurrera bota ninduan.
Gogor heltzen ez badotsazu, jausi egingo jatzu.



3.3- Prakak jantzi dittut / Prakak jantzi naiz

Oso akats arrunta dogu ondorengo hau:

Prakak eta txapela jantzi naiz

Izan be, *jantzi* aditza nor-nork formakua da.

Hortaz:

Prakak eta txapela jantzi dittut

“Nor” formako aditza bakar-bakarrik ondorengo kasuetan erabiliko da:

Gorritz jantziko naiz.

Jantziko zara, behingoz?

Akats honen atzian gaztelaniaren eragiña dogu

(me he puesto los pantalones, me he vestido).

“Me” izenordia da, nonbait, akatsaren sorburua.

Beltzez **jantzi da.**

baiña

Zapatak **jantzi zittuen.**

Urrezko belarritakuak **jantzi dittu.**

4- Hizkuntza-tailerra:

Helburuak:

4.1- Haur hezkuntza

- Nork bere gorputza ezagutzia
- Gorputzari lotutako hiztegixa erabiltzia

Gogoratu nahi dogu, berriz be, edade honetan ez dagoela hizkuntza era kontzientian lantzerik. Izan be hizkuntza, komunikatzeko tresna bat besterik ez da. Hortaz, ez dotsagu eskatuko hizkuntzaz hausnartzia. Hizkuntza erabili egingo dogu. Eredu zuzenak eskaintzen dotsegun neurrixan bereganatu egingo dittue forma egokixak.

Gorputza lantzeko irakasliok badaukazue material pillia. Hemen eskaintzen doguna hori osatzera dator, beste barik.

4.2- Lehen Hezkuntza

- Gorputzaren ezagutzan sakontzia
- Gorputzari lotutako hiztegixa erabiltzia
- Gorputzari lotutako hizkuntza akatsez jabetzia.

Eguneroko jardunak, edade honetan be, hainbat aukera eskaintzen dosku eredu zuzenak erabiltzeko. Horretaz gain, hizkuntzaz eta hizkuntzaren erabillera zuzenaz jabetzen doiatzen neurrixan eredu zuzenak indentifikatzera bultzatuko dittugu ikasliak.

Aurretik esan bezela, hemen eskaintzen doguna irakaslion materiala osatzera dator, beste barik.



4.3- Bigarren Hezkuntza

- Gorputzaren ezagutza sakontzia
- Gorputzari lotutako hiztegixa erabiltzia
- Gorputzari lotutako hizkuntza akatsez jabetzia.

Eguneroko jardunak, edade honetan be, hainbat aukera eskaintzen dosku eredu zuzenak erabiltzeko. Horretaz gain, hizkuntzaz eta hizkuntzaren erabillera zuzenaz hausnartzeko eskatuko dotsegu.

Aurretik esan bezala, hemen eskaintzen doguna irakaslion materiala osatzera dator, beste barik.

		Gorputzaren atalak	Posturak	Mobimenduak	-ren moduan -k bezala	Jantzi dot
4.1.1.	Ispilluaren aurrian	⊗	⊗			
4.1.2	Simonek diño	⊗	⊗	⊗		
4.1.3	Harren moduan	⊗	⊗	⊗	⊗	
4.1.4.	Fokak bezala	⊗	⊗	⊗	⊗	
4.1.5	Karamarruen moduan	⊗	⊗	⊗	⊗	
4.1.6	Elefantiak bezala	⊗	⊗	⊗	⊗	
4.1.7.	Kanguruaren moduan	⊗	⊗	⊗	⊗	
4.1.8	Igelak bezala	⊗	⊗	⊗	⊗	
4.1.9	Untxien moduan	⊗	⊗	⊗	⊗	
4.1.10	Gurdixa eta gurdizaina	⊗	⊗	⊗	⊗	
4.1.11	Edurrezko panpina	⊗	⊗	⊗	⊗	
4.1.12	Zer egitten dabe animalixak?	⊗	⊗	⊗	⊗	
4.1.13	Hauxe da nere sudurra	⊗	⊗		⊗	
4.1.14	Laguntza barik jazten naiz	⊗	⊗			⊗
4.1.15	Eskubidubidu...	⊗		⊗		
4.1.16	Hasi dantzan	⊗			⊗	
4.2.1.	Korapilluak	⊗	⊗	⊗	⊗	
4.2.2.	Minuet	⊗	⊗	⊗	⊗	
4.2.3	Kipula hostuen moduan	⊗	⊗	⊗	⊗	
4.2.4	Tren itsuak	⊗	⊗	⊗	⊗	
4.2.5	Laguntxuak	⊗	⊗			
4.2.6	Ikusi nebanian	⊗				
4.2.7	Giza-eskulturrak	⊗	⊗	⊗	⊗	
4.2.8	Igarkizunak	⊗				
4.2.9	Gorputzaren atalak	⊗				
4.2.10	Kirol-motak	⊗	⊗			
4.2.11	Txakurrak eta jabiak	⊗			⊗	
4.2.12	Igual-igualak	⊗			⊗	
4.3.1	Beroketia	⊗	⊗	⊗		
4.3.2	Sorospen ikastarua	⊗	⊗	⊗		
4.3.3	Gorputz atalak, lagun!	⊗	⊗	⊗		
4.4.4	Erretrato robota	⊗				
4.4.5	Zure moduan / Zuk bezala egingo dot...	⊗				



Ariketak:


4.1.1- Ispilluaren aurrian:

Edadia: HH

Materiala: gorputz osua islatzen daben ispillua

Egitteko modua:

- Hasteko, ispilluan begiratzeko lagako dotsegu.
- Aurpegixakin jolasian egin: poza, tristuria, haserria, ezustekua ... agertzeko aurpegixa jartzeko eskatuko dotsegu; eta ondoren, ahua, begixak, bekaiñak eta abar zela daren galdetuko dotsegu.
- Posturekin gauza bera egingo dogu: emozioak jarri eragitten doskuen posturak aztertuko dittugu.



Ariketa osagarriak:

- ◆ Argazki eta komikixetako pertsonaiak adierazitako emozioak aztertu. Eta hori nekeza pentsatu ezkerreko, ipuin bat kontatu eta ipuin horretako pertsonajak izango litzuzkien emozioak azaldu. (Eranskiñetan: "Emozioak aztertuz")
- ◆ Emozioak marraztu. (Eranskiñetan: Emozioak eta mobimentuak marraztuz)

4.1.2- Simonek diño:

Edadia: HH

Materiala:

Egitteko modua:

- Jolasaren arauak azalduko dotsegu: "Simonek diño" esaten danean, esandakua egin behar da. Bestela, "Simonek diño" esaten ez danean geldi egon behar da. Gaizki egiten dabenak gidatuko dau jolasa.
- Jolasian hasiko gara:
 - Simonek diño jartzeko
 - Bekaiñak altxatzeko
 - Belarrixa ikutzeko
 - ...


4.1.3 - Harren moduan

Edadia: HH

Materiala:

Egitteko modua:

- Harrak ezagutzen dituden galdetuko dotsegu, zelakuak diren eta abar. Gero, harrak bezalaxe ibilliko garela esango dotsegu. Eta horretarako jarraipidiak banan-banan emongo dotsegu. Hasieran hitzak besterik ez dittugu erabiliko, bestela, gure mobimentuak imitatuko dittue hitzetan arreta jarri barik.
 - ◆ Aurrera makurtu, esku bixekin lurra ikutzeraño
 - ◆ Makurtuta eta eskuak lurrian dauzkagula egingo dogu aurrera. Oñak eskuetaraño aurreratuko dittugu, bizkarra konkortuz, harrek bezalaxe. Gero eskuak aurreratu mobimentua errepikatzeko.
 - ◆ Nahiz izanez gero, mobimentuak arazorik gabe egiten ditudenian, lasterketa bat egin leike.






4.1.4- Fokak bezala

Edadia: HH

Materiala:

Egitteko modua:

- ◆ Ahuzpez etzan egingo gara.
- ◆ Esku-barruak lurrian jarriko ditugu, bihetzak kanpora begira.
- ◆ Poliki-poliki jasoko dogu burua, bularra eta gerrixa, besuak luze-luze izan arte.
- ◆ Besuekin indarra egiñaz, eta hankak arrastaka, aurrera egingo dogu.
- ◆ Etzan, besuak aurreratu eta berriro hasi.




4.1.5- Karamarruen moduan

Edadia: HH

Materiala:

Egitteko modua:

- ◆ Belaunak tolostuz, kukumixo jarriko gara.
- ◆ Gorputza atzera eruangotuta dabe eskuak lurrian jarri arte, baiña jarri barik. Horretarako, bizkarra gogor eduki bihar dabe.
- ◆ Ibiltzeko, eskumako hankia eta besua aurreratuko ditue aldi batera, eta gero ezkerrekuak.




4.1.6- Elefantiak bezala

Edadia: HH

Materiala:

Egitteko modua:

- ◆ Zutik jarriko gara, hankak bata bestetik aldentuta.
- ◆ Belaunak tolostu barik, aurrera makurtuko gara eskuak lurrian jarri arte.
- ◆ Hankak eta besuak luze-luze ditugula elefantiaren pauso motela imitatuko dogu.




4.1.7- Kanguruen moduan

Edadia: HH

Materiala:

Egitteko modua:

- ◆ Belaunak tolostuz, kukumixo jarriko gara.
- ◆ Besuak bularrean tolostuko ditugu.
- ◆ Aurrera salto egingo dogu, ahal bezain urdin, besuak mobidu barik.
- ◆ Lurra ikutzen dan bakoitzian belaunak tolostu, abixadia hartzeko hurrengo saltorako.






4.1.8- Igelak bezala

Edadia: HH

Materiala:

Egitteko modua:

- ◆ Belaunak tolostuz, kukumixo jarriko gara.
- ◆ Eskuak lurrian jarriko dittugu, belauen artian.
- ◆ Aurrera salto egingo dogu, hankak eta besuak batera bultzatuta.



4.1.9- Untxien mdouan

Edadia: HH

Materiala:

Egitteko modua:

- ◆ Belaunak tolostuz, kukumixo jarriko gara.
- ◆ Eskuak lurrian jarriko dittugu aurrealdian, pixka bat aldentuta.
- ◆ Aurreruntz salto egingo dogu, hankekin eta besuekin batera bultza egiñaz.
- ◆ Lurra ikutzerakuan oiñak eskuen artian geldittu bihar dabe.


4.1.10- Gurdixa eta gurdizaiña

Edadia: HH

Materiala:

Egitteko modua:

- Biñaka jarriko dira. Bat gurdixa izango da, bestia gurdizaiña.
 - ◆ Gurdi egitten dabenak eskuak bakarrik edukiko ditte lurrian. Horretarako hankak luzatu eta zurrundu egingo ditte.
 - ◆ Gurdizaiñak orkatilletatik helduko dotsa aurrekuari, hankak altxauko dotsa eta ibiltzen ahaleginduko dira.






4.1.11- Edurrezko panpiña

Edadia: HH

Materiala:

Egitteko modua:

- Hasteko, gorputzaren tentsiño-erlajaziño egoerez jabetu eragingo dotsegu, ondorengo aginduen bidez:
 - ◆ Besuak, enborrak bezain gogor jarri. Gero, trapuzkuak balira moduan, jausten laga
 - ◆ Gauza bera hankekin.
- Hasteko, irakaslia izango da edurrezko panpiña, eta gaztiak eguzkixak
 - ◆ *“Edurrezko panpiña naiz eta eguzkixa hurbildu ahala poliki-poliki urtu egingo naiz”* Hurrenez hurren burua jausten laga, besuak jeitsi, belauak tolostu, makurtu, ... guztiz urtuta lurrian gelditu arte.
- Gero, rolak trukatu dittue. Irakaslia izango da eguzkixa eta gaztiak panpiñak.



4.1.12- Zer egitten dabe animalixak?

Edadia: HH

Materiala:

Egitteko modua:

“Simonek diño” jolasaren aldaera bat da. Izan be, agindu batzuk bete bihar dira eta beste batzuk ez.

- Jolasaren arauak azalduko dotsegu: Jolasa gidatzen dabenak zentzuzko esaldi bat esaten dabenian, esate baterako, *“saldixa trostan doia,”* esandakua egin bihar da; hortaz, trostan egingo dabe ikasliek. Baiña zentzurik ez daukana esaten badau, adibidez, *“saldixa igerixan dabil”*, geldi egon biharko dabe. Nahastu eta araua betetzen ez dabenak gidatuko dau hurrengo jolasa.
- Jolasian hasiko gara:
 - “Saldixa trostan doia”
 - “Belia igerixan doia”
 - “Subia narrasian doia”
 -

4.1.13- Hauxe da nere sudurra

Edadia: HH eta LH

Materiala:

Egitteko modua:

Gaztetxuak oso gustukua daben jolas honek koordinaziñua eta gorputzaren ezagutza lantzen dau.

- Zutik eta borobillian, irakasliak esango dotsa onduan daukan ikasliari: *“hauxe da nere sudurra”* eta eskuekin gorputzaren beste edozein atal seiñalatuko dau, oiña adibidez.
- Ikasliak *“hauxe da nere oiña”* —aurrekuak seiñalatutako atala— esango dotsa ondokuari, beste edozein atal seiñalatu.
- Hortaz, borobillian jarraituz, bakoitzak aurrekuak seiñalatutako atala esango dau, beste atalen bat seiñalatu daben bittartian.



4.1.14- Laguntza barik jazten naiz

Edadia: HH

Materiala: Ipuiñaren irudixak (DKa, ordenatoria eta eranskiñak).

Egitteko modua:

Ipuin honen irudixak hainbat gauza lantzeko bidia emoten doskue.

- Beste barik, ipuiña kontau. Irudixak erakutsizaz, irakasliak kontauko dau. Ondoren gaztetxuak dramatizau egin leikie.
- Irudixak inprimatzen badittugu,
 - ◆ Ikasliak irudi bana daukela, ipuiña entzun ondoren irudixak ordenan jarriko dittue eta gero ipuiña eurak kontauko dabe.
 - ◆ Gauza bera, baiña ikasle bakoitzak edukiko dittu irudi danak.

Ariketa osagarria:

- Elkarrizketa bideratuko dogu bakoitzak kontau deixen zela jazten dan:
 - Prarak jazten dittuzunian, zutik ala jarritta egoten zara?
 - Zela jazten dozu jertsia, lehenengo besuak ala lehenengo burua?
 - ...

4.1.15- Eskubidubidu...

Edadia: HH eta LH

Materiala: kantua (“Euskal Jolasen Bilduma”DK. Urtxintxa eskola)

Egitteko modua:

- Hasteko, jolasaren arauak azalduko dotsegu: Txaloka jolasten da, eta gorputzaren atal bakoitzak bere soiñua eta keiñua dauzka. Gorputzaren atal berri bat sartu ondoren, soinu eta keiñu guztiak errepikatuko dira –izenak aipatu gabe—. “Eskubidubidu” esaten dan bittartian bueltia emoten da, eskuak altxatuz eta mobiduez.

Hankaren soiñua: (bi kolpe lurrian)
Hankaren soiñua: (bi kolpe lurrian)
Hankaren soiñua eta eskubidubidu:
(bi kolpe lurrian)

Eskuaren soiñua: (bi txalo)
Eskuaren soiñua: (bi txalo)
Eskuaren soiñua eta eskubidubidu:
(bi kolpe lurrian, bi txalo)

Begiaren soiñua: klik-klak
Begiaren soiñua: klik-klak
Begiaren soiñua eta eskubidubidu:
(bi kolpe lurrian, bi txalo) klik-klak

Ahuaren soiñua: aahhh
Ahuaren soiñua: aahhh
Ahuaren soiñua eta eskubidubidu:

(bi kolpe lurrian, bi
txalo) klik-klak, aahh
Sudurraren soiñua: tilin-tilin
Sudurraren soiñua: tilin-tilin
Sudurraren soiñua eta
eskubidubidu:

(bi kolpe lurrian, bi
txalo) klik-klak, aahh,
tilin-tilin

Belarrixen soiñua: tolon-tolon
Belarrixen soiñua: tolon-tolon
Belarrixen soiñua eta eskubidubidu:

(bi kolpe lurrian, bi
txalo) klik-klak, ...

Illiaren soiñua: xxxxxxx
Illiaren soiñua: xxxxxxx
Illiaren soiñua eta eskubidubidu:

(bi kolpe lurrian, bi
txalo) klik-klak, ...

Ipurdiaren soiñua: plis-plas
Ipurdiaren soiñua: plis-plas
Ipurdiaren soiñua eta eskubidubidu:

(bi kolpe lurrian, bi
txalo) klik-klak, ...

Ariketa osagarria:

- Beste bertso batzuk gehitzeko eskatuko dotsegu ikasliei. Taldeka egin leikie.



4.1.16- Hasi dantzan

Edadia: HH

Materiala: kantua (“Euskal Jolasen Bilduma”DK. Urtxintxa eskola)

Egitteko modua:

- Jolasaren arauak: Danak batera egingo dabe kantuan, borobillian. Bateren baten izena esandakuan, hori dantzan hasiko da, eta bestiek bera imitatu egingo dabe; harek beste baten izena esan arte.

*Oso ondo egitten dozulako
Mobidu besuak olatuak bezala
Ta xuabe, xuabe, xub, xub, xuabe
Hei (**izena**) hasi dantzatzen*

Jolasaren aldaera bat:

- Aukeratutakuak —dantzan egitten daben bittartian— gorputzaren atalen bat aittatuko dau. Adibidez:

*Oso ondo egitten dozulako
Mobidu belauna olatuak bezala
Ta xuabe, xuabe, xub, xub, xuabe
Hei (**izena**) hasi dantzatzen*

4.2.1- Korapilluak

Edadia: LH

Materiala:

Egitteko modua:

Jolas ezagunaren aldaera bat da ondorengo hau.

- Hasteko, arauak azalduko dotsegu: taldeko bat kanpuan dagoen bittartian, bestiak eskutik helduko dotse elkarri, ilaria ala borobilla osatuz. Ondo helduta darenian, eta eskuak askatu barik, bestien artian pasatuko dira korapillua lortu arte.
- Orduan esango jako gelara sartzeko kanpuan gelditu danari. Berak, hitzez —keiñurik egin gabe—, esango dotse bestiei zer egin korapillua askatzeko. Lotuta darenak zehatz-mehatz bete bihar dabe horrek esandakua, keiñuak kontuan hartu barik eta interpretatu barik, eta ezingo dotse galderarik egin. Adibidez: “*pasau besua buruaren gaiñetik*” esaten badotsa, bestiak ez dagokixon besua mugittuko dau eta beste edozein bururen gaiñetik pasauko dau. Horrela, instrukziño zehatzak emotera bihartuko dogu.
- Jolasa ulertu dabela ikusten darian, irakaslia izango da gelatik irtetzen lehenengua.



4.2.2- Minuet

Edadia: LH

Materiala:

Egitteko modua:

Frantzian, dantzaldi baten daren gaztiak direla esango dotsegu ikasliei. Danak momenturik desiragarrienaren zain dare, hau da, minuet dantzatzeko momentuaren zain. Eta momentua aillegauta, danak jarriko dira borobillian, besuak luzatuta lortzen dan distantzian. Danok buelta laurden egingo dabe eskumara, bata bestiarene atzetik gelditzeko.



- Orduan, kantua eta egin biharreko pausuak erakutsiko dotsegu.
 - Kafe frantsez baten* (pausuak aurrera)
 - Minuet dantzatzen* (pausuak atzera)
 - Kafe frantsez baten* (pausuak aurrera)
 - Minuet dantzatzen* (pausuak atzera)
- Dantza egiteko, danok ezkerreko oiñarekin hasiko dira.
- Buelta erdi emongo dabe, eta gauza bera egingo dabe. Horrela, dantzan hasteko, beti buelta erdi emongo dabe, eta kontrako norabidian hasiko dira.
- Orduan, dantzaldiaren ipuiña jarraituko dogu:
 - ◆ Hasieran, ez zeben elkar ezagutzen, hortaz ez zeukaten konfidantzarik eta nahiko lotsatuta zeren gure dantzarixak. Horregatik, aurrekuari heltzeko esandakuan bihetzaren puntiarekin sorbaldia besterik ez dotse ikutu aurrekuari. Eta dantzan egingo dabe.
 - ◆ Poliki-poliki konfidantza gehixagorekin, hurrengo bueltak: eskuekin gerritik heldu, aurrekuari gerritik besarkatuta, aurrekuaren aurrekuari gerritik besarkatuta, eta atzekuaren altzuan...
- Horrela, atzera egitterakuan danak lurrera jausten diranian bukatuko da jolasa.

4.2.3- Kipula hostuen moduan

Edadia: LH

Materiala:

Egitteko modua:

- Danon artian kipula bat osatzeko esango dotsegu ikasliei. Horretarako bat lurrian, paretaren kontra jarriko da eta hankak zabalduko ditu. Bere aurrian beste ikasle bat jarriko da, ahalik eta estuen, kipuliaren kapak balira moduan. Eta horrela beste ikasle guztiak, bat kenduta.
- Kipulan sartu ez dan horrek eskuetatik helduko dotsa lehenenguari eta "kipulatik" etaritzen saiatuko da, lortzen dabenian, etaratakua bestiarene atzian jarriko da eta hurrengua etaritzen lagunduko dotsa, parian beste kipula bat osatzeko.
- Ikasliak aspertu arte jarraituko dogu.

Ariketa osagarria:

- Elkarrizketia bideratuko dogu. Bakoitzak kontau deixela:
 - Zein posturatan zeguan beste bat etaratzeko.
 - Indarra, miña nun sentidu daben
 - ...



4.2.4- Tren itsuak

Edadia: LH

Materiala: begixak estaltzeko zapiak

Egitteko modua:

- Trenak mobiduko diren eremua mugatuko da. Trena laupabost gaztek osatuko dabe. Trena osatzeko eskuak aurrekuaren sorbaldetan jarriko ditue. Azkenak ez beste guztiak begixak estaliko ditue. Azken haura izango da gidarixa eta seiñal-sistema bat izango dau, bestiak aurrekuari errepikatuko jauena trenaren hasierara heldu arte:
 - Sorbaldetan bi kolpe: zuzen aurreratu
 - Sorbaldetan kolpe bana: gelditu
 - Hiru kolpe: atzera jua
 - Eskumako sorbaldan kolpe bat: eskumara buelta emon
 - Ezkerreko sorbaldan kolpe bat: ezkerreara buelta emon
- Jolasa izan leike ibilbide bat osatzia, bidian hainbat oztopo saihestuz. Batez be gaztienekin da egokixa aukera hau.
- Beste aldaera bat –nagusiaguendako—ondorengo hau izan leike:
 - ◆ Beste tren baten aurrian darenian, gidarixak “irteeria” esango dau, eta aurreko muturrian doian ikasliak bakarrik egingo dau aurrera, besuak luzatuta. Beste trenarekin topo egitten badau ikututako umia/ak harrapatu egingo ditte; gidarixa ikutzen badau, berriz, tren osua bereganatuko dau. Beste iñor ikutzen ez badau, bere tokira bueltauko da.
 - ◆ Tren bakar bat osatzen danian bukatuko da jolasa.



4.2.5- Laguntxuak

Edadia: LH

Materiala: Jolasteko eremu zabala biharko dogu.

Egitteko modua:

- Jolasa elkarrizketa moduan bideratzen da. Ikasliak borobillian izango dira. Gidarixak, hasteko irakasliak esango dotse bestiei:
 - Aupa, laguntxuak!
 - Aupa, laguntxo!
 - Jarri (gorputzeko edozein atal, eskumakua ala ezkerrekoa zehaztuz) ezkerrian dozun laguntxuaren (gorputzeko beste edozein atal)n; eta (beste edozein atal) eskuman dozuen laguntxuaren (beste edozein atal)n.
- Gorputzaren atalak “txo” hizkuntzaz aittatu bihar dira: burutxua, belauntxua, ...
- Nahasketa handixagua egitteko, borobillian jarri barik, bakoitzak nahi daben tokixan jarritta egin leike.



4.2.6- Ikusi nebanian

Edadia: LH

Materiala: Kantua (DK eta ordenatoria)

Egitteko modua:

- Kantua entzun eta ikasi ondoren, taldeka, beste bertso batzuk gertauko dittue, beste atal batzuekin.

*Ikusi nuenian
Nik zure kokotsa,
Iruditu zitzaidan, monona
Gaztainan morkotsa.*

*Ikusi nuenian
Nik zure sudurra,
Iruditu zitzaidan, monona,
Odolki muturra.*

*Ikusi nuenian,
Zure belarria,
Iruditu zitzaidan, monona,
Azaren orria.*

*Ikusi nuenian
Nik zure ahua,
Iruditu zitzaidan, monona,
Karobi zuloa.*

*Ikusi nuenian
Nik zure begia,
Iruditu zitzaidan, monona,
Anpolai gorria.*

*Ikusi nuenian,
Nik zure kopeta,
Iruditu zitzaidan, monona
Frontoian pareta.*

*“Sí, morenita, sí,
si es para divertir;
tú llevarás la manta,
morena,
yo llevaré el candil”*

*“Sí, morenita, sí,
si es para divertir;
tú llevarás la manta,
morena,
yo llevaré el candil”*

*“Sí, morenita, sí,
si es para divertir;
tú llevarás la manta,
morena,
yo llevaré el candil”*

4.2.7— Giza-eskulturak

Edadia: LH

Materiala: bionbua

Egitteko modua:

- 4-5 laguneko taldiak osatuko dittue. Taldiak biñaka jolastuko dabe.
- Bionbuaren alde batetik talde bateko 4k giza-eskultura bat osatuko dabe (gelako altzarixak eta materialak be erabili leizke, nahi izanez gero).
- Giza-eskultura osatuta dagianian, beste taldeko batek ikusiko dau eta berbaz —eta keiñu barik— esango dotse bere taldeko bestiei zela jarri bihar diren. Helburua da eskulturiaren kopixa zehatza lortzia.

Aldaera bat:

Edadiaren arabera, eskulturiaren kopixia gidatzen dabenak hartu leike minutu batzuk eskulturia ikusteko eta ondoren, berriz ikusi barik aginduak emon; edo bestela, ikusten daben bittartian aginduak emon.



4.2.8- Igarkizunak

Edadia: LH

Materiala: Igarkizunak

Egitteko modua:

- Hainbat igarkizun proposatuko dotsuegu. Adibidez:

*Elkarren lagun
Elkarren etsai;
Bata lanean ari bada
Bestea lasai
Bien lanarekin
Iritsiko zara noranahi.
(hankak)*

*Leize-zuloak bi ate
Biak daude parez pare;
Hor euri, hortxe haize,
Hor lokatz berde-berde.
(sudurra)*

*Ni naiz pelotari
Badut bat, badut bi.
Tanto asko egiten dut,
Ni naiz tanten iturri. (zakila)*

*Argirik gabe ez gara ezer
Argi gehiegik mindu egiten
gaitu;
Urrutira iristen gara
Nahiz eta beti gauden gatibu.
(begiak)*

*Espetxean sorgina
Biluzik eta bustirik
Burdin hesiz inguraturik.
Nahiz eta ireki atea
Ez du ihes egingo handik
Baina kantatuko du pozik
(mingaina)*

*Ahua naiz
eta ez dut jaten,
ezpainak baditut
eta ez naiz mintzatzen:
ilunpean bizi naiz
eta bizia dut argitaratzen.
(alua)*

- (Horrek **Mintzo naiz isilik...** liburutik hartu dittugu. Bertan eta **Auskalo!** eta **Axa, Mixa, Zilarra** liburuetan gehiago topauko dittuzue)

- Gero, taldeka, eurak gertauko dittue beste batzuk, ondorengo gorputz atalendako:

Belauna zilborra sorbaldak lepua ...

4.2.9- Gorputzaren atalak

Edadia: LH

Materiala: Gorputzaren irudixak (eranskiñetan)

Egitteko modua:

- Taldeka eta laguntza barik, irudixei gorputzaren atalen izenak jarri.
- Gero, atalen zerrendia emon, irudixak zuzendu eta osatzeko.

4.2.10- Kirol-motak

Edadia: LH Materiala: Kirol ezberdiñetako irudixak (DK, ordenadoria eta eranskiñak)

Egitteko modua:

- Taldeka egingo da, txandaka.
- Taldeko bati argazki/irudi bat erakutsiko jako. Bertan, kirolariren bat jokuan agertuko da. Ikasle horrek bere taldari jokalararen deskripziñua egingo detsa, baiña ondorenguak aittatu barik: jantzixak, tresnak, tokixa, emakumezkua ala gizonezkua dan, eta abar. Bakar-bakarrik gorputzaren posturia deskribau leike. Taldiak zein kirol-motako jokalarixa dan asmau biharko dau.



4.2.11- Txakurrak eta jabiak

Edadia: LH

Materiala: DK eta ordenadoria

Egitteko modua:

Power Point aplikaziñuan sortutako fitxategia da. Irudixak “klik” egiñaz agertuko dira. Zenbait modutan erabili leike.

- Beste barik, irudixak ikusi eta ondoren ia egixa dan galdetu.
- Pantaila bakoitzian, bigarren irudixa agertu baiño lehen, horren ezaugarriak aldez aurretik asmatzia eskatuko dotsegu —marraztu be egin leikie—. Bigarren irudixa agertutakuan asmau daben egiaztatuko dabe.
- Bikoteka, bakar batek ikusiko dittu irudixak, eta besteari deskribatuko dotsa, horrek marrazteko. Gero irudixekin alderatuko dittue marrazkixak.

4.2.12- Iguai-iguaiak

Edadia: LH

Materiala: fitxia (eranskiñetan).

Egitteko modua:

Biñaka edo taldeka jardungo dabe. Txandaka eta bestiak esandakuari jarraituz, pertsonaje berrixa marraztuko dabe. Horretarako ondorengo esaldixen modukuak erabiliko dittue:

Sudurra, amama Eulalirena bezalakua da.

Hankak, berriz, Teodororenak modukuak dira.

....

4.3.1- Beroketia

Edadia: DBH

Materiala: Beroketa fitxak (eranskiñetan).

Egitteko modua:

Hiru urratsetan egingo dabe ariketa hau:

- Beroketa-taula baten, ariketiaren deskripziñua eta dagokixon marrazkixa lotu biharko dittue.
- Beroketa-ariketa baten deskripziñua emonda, dagokixon marrazkixa egin biharko dabe.
- Marrazkixa emonda, ariketaren deskripziñua egin biharko dabe.

4.3.2- Sorospen ikastarua

Edadia: DBH

Materiala: bideua (DK eta ordenadoria).

Egitteko modua:

- Sorospen ikastaro baten irudixak ikusiko dittuela esango dotsegu ikasliei. Aukeratutako sekuentzian, konortia galdu daben pertsona bat uretatik zela etara ikusiko dabela.
- Ondoren, taldeka, instrukzio-fitxa bat gertauko dogu.




4.3.3- Gorputz atalak, lagun!

Edadia: DBH

Materiala: Baloiak

Ariketa hau **Futbola, entrenatzaile eta irakasleentzako fitxa didaktikoak** (Baloia ardatz 7 fitxan, 22.or.) liburuan proposatzen danaren moldaketa bat da.



- Hasteko, fitxan proposatzen diran ariketa eta horren aldaerak egingo dittue, irakasliaren aginduz.
- Gero, ariketiaren fitxia gertauko dabe.


22


BALOIA ARDATZ 6 (Baloia kontrolatzea)

GORPUTZ- ATALAK, LAGUN!

- **Joko-eremua:** Edozein toki.
- **Antolaketa:** Banaka.
- **Materiala:** Puxika bana.
- **Azalpena:**
Jokalaria puxika modu ezberdinetan kontrolatzen saiatuko dira. Bakoitzak puxika airera botako du, gero, esku edo besoak ez diren edozein gorputz atal erabiliz, puxika moteltzen arituz. Zenbat eta denbora laburragoan lortu erabateko kontrola, hobe.



- **Aldaerak:**
 1. Hondartzarako baloia edozein gorputz-atalez (esku edo besoez izan ezik) erabat kontrolatuz.
 2. Ariketa berbera baina botea eman ondoren.
 3. Izterraz bakarrik baliatuz.
 4. Ariketa berbera bularraz.
 5. Gauza bera sorbaldez.
 6. Kontrol zuzena oinbularraz.
 7. Berbera oinzolaz.
 8. Aurreko ariketa guztiak baina apar-baloiaz eginda.
 9. Erabateko kontrola lortu ordez, kontrol orientatuak burutuz, alegia, baloiari irteera edo jarraipena emanez: aurrera, albora, atzera...
 10. Aurreko hauek guztiak baina futboleko baloiaz.
- **Oharrak:**
 - Aldaeretan ikusitako ariketetan gure azalpenak ezinbestekoak dira.
 - Jokalaria minik ez hartzea eta baloiari beldurrik ez izatea da xedea.
 - Ariketak ez dituzte saio berean egin behar, jokalaria aspertu egingo baitira. Beraz, hobe denbora luzean burutzea.

KIROLA  EUSKARAZ

FUTBOLA

4.3.3- Erretrato robotata

Edadia: DBH

Materiala: eranskiñetan

- Taldeka edo biñaka jardungo dabe. Hasteko, fitxa banatuko dotsegu, irakurri deixen.
- Gero, erretrato robotak egiten saiatuko dira.
- Ezagun batena. Batek marraztu egingo dau, bestiak marrazkilarixa gidauko dabe. Ondoren, marrazkixak alderatuko dittue.
- Aurrekua bezalaxe, baiña orain marraztu egin bihar dabe miñutu batzuetan aurrian eduki daben irudi bat.

4.3.4- Zure mduan/Zuk bezala egingo dot...

Edadia: DBH

Materiala: eranskiñetan

- Ariketa analitikua da. Banaka edo biñaka egin leike.
- Fitxia aztertu ondoren, danon artian etaratako erabillera-arauak osatuko dittue.



gehixago eta hobeto

AHOZKO EUSKARAZKO AKATSAK ZUZENTZEN

Prakak jantzi dittut (jantzi naiz)

Oso akats arrunta dogu hau, gaztelaniaren eragiñez sortutakua.

Gogoratu bihar dogu **jantzi** aditzak nor ala nor-nork laguntzailliak eskatzen dittuela, esan nahi dogunaren arabera.

Horrela,



Oraindik ez
DITTUZU
zapatak
JANTZI?



Sorgin jantziko naiz. Bai, amaren soiñeko beltza **jantziko dot**(naiz), izebak erregalautako kapela beltza be **jantziko dot** (naiz), eta erratza hartu eta hegaran egingo

dot!

Aukeratu egokixena:

- Mendixak txapela jantzi _____ (da/dau), laster eurixa.
- Iruñean zapi gorrixa jantziko _____ (gara/dogu), Donostian, aldiz, urdiña.
- Jantzi _____ (zaren/dittuzun) praka horrek apurtuta dare, erantzi eta josiko dotsut.
- Gaur Aizkorrira baldin banoia bota berrixak jantziko _____ (naiz/dittut)

Eta kontuz!

Erropia, oiñetakuak, kapelak **JANTZI** eta **ERANTZI** egiten dittugu.

Beno, ipini be egitten dogu, baiña

Armaixuan, mahai gaiñian eta garbigailluan...



gehixago eta hobeto

AHOZKO EUSKARAZKO AKATSAK ZUZENTZEN

Zure moduan / zuk bezala
egingo
dot... (zure-bezala)

Inguru honetan,
lehen ez zan
erabiltzen "bezala",
"modua" baizik. Eta
biherbada
horregatik nahastu
egitten dittugu
forma bixak.

Izan be, sinonimuak
diren arren, ez dira
berdin erabiltzen:



Begira, aitta,
atletak bezala
egitten dot!!

Nik **zure moduan** egingo dot.

↔ Nik **zuk bezala** egingo dot. (zure-bezala)

Alabia amaren **modu-modukua** da

↔ Alabia **ama bezalakotxia** da. (amaren-bezalakotxia)

Edurraren **moduan** urtu zan.

↔ **Edurra bezala** urtu zan. (edurraren-bezala)

Berandu, betiko moduan

↔ Berandu, **beti bezala**. (betiko-bezala)

Hutsuniak bete:

Lehengo **moduan** egingo dozue?

↔ _____ **bezala** egingo dozue?

Zure **modu-modukoa** da

↔ _____ **bezalakotxia** da.

Hango **moduan** hemen be.

↔ _____ **bezala** hemen be.



gehixago eta hobeto

CORRIGIENDO LOS ERRORES EN EL HABLA

Prakak jantzi dittut (jantzi naiz) Me he puesto los pantalones

Este es un error muy común. El verbo "jantzi" (vestir, ponerse) se utiliza en forma intransitiva y transitiva, según lo que digamos.



Oraindik ez
DITTUZU
zapatak
JANTZI?



Todavía no te has puesto los zapatos?

- *Sorgin jantziko naiz.*
- *Bai, amaren soñeko beltza **jantziko dot** (naiz),*
- *Izebak erregalautako kapela beltza be **jantziko dot** (naiz),
eta erratza hartu eta hegaran egingo dot!*

Me vestiré de bruja.

Sí, me pondré el vestido negro de mamá,

También me voy a poner el sombrero negro que me regaló la tía.

Y cogeré la escoba para volar!!

Para hacer con ayuda de tu hijo/a:

- *Iruñean zapi gorriak jantziko _____ (gara/dogu), Donostian, aldiz, urdiña.
En Iruñea nos pondremos el pañuelo rojo, en Donostia, en cambio, el azul.*
- *Jantzi _____ (zaren/dittuzun) praka horrek apurtuta dare, erantzi eta josiko dotsut.
Esos pantalones que te has puesto están rotos, quitámelos y te los coseré.*

Atención!

Para decir que nos ponemos y quitamos la ropa, los zapatos, el sombrero, etc. utilizamos los verbos **JANTZI** y **ERANTZI** (ponerse y quitarse).

Utilizamos los verbos **IPINI** y **KENDU** (poner y quitar) cuando queremos poner la ropa en algún sitio, en el armario, en la mesa, en la lavadora, etc.



gehixago eta hobeto

CORRIGIENDO LOS ERRORES EN EL HABLA

Zure moduan /zuk bezala egingo dot... (~~zure bezala~~)

Haré como tú, por si acaso...

Las palabras "bezala" y "modua" –que significan "como" son sinónimos, pero no se utilizan de la misma manera.

En la zona de Bergara se utilizaba sobre todo "modua" y tal vez se deba a ello que hoy se utilice incorrectamente "bezala".

Mira los siguientes ejemplos:



Mira, papá, salto como los atletas!!

Nik **zure moduan** egingo dot.

↔ Nik **zuk bezala** egingo dot. (~~zure bezala~~)

Haré como tú.

Alabia amaren **modu-modukoa** da

↔ Alabia **ama bezalakotxia** da. (~~amaren bezalakoxea~~)

La hija es igual que (como) la madre.

Eduurraren **moduan** urtu zan.

↔ **Edurra bezala** urtu zan. (~~edurraren bezala~~)

Se derritió igual que (como) la nieve

Berandu, **betiko moduan**

↔ Berandu, **beti bezala**. (~~betiko bezala~~)

Tarde, como siempre

Completa las siguientes oraciones:

Lehengo _____ egingo dozue? (moduan/bezala) (Haréis como antes?)

Zu _____ da. (modukoa/bezalakua) (Es igual que tú.)

Hango _____ hemen be. (moduan/bezala) (Aquí como allí)

Aurten be, iaz _____. (moduan/bezala) (Este año también, como el año pasado)




Ariketen fitxak



Emoziñuak aztertuz

Marrazki-sekuentzia honetako pertsonajiak hainbat emoziño adierazten ditue.
Zeintzuk dira emoziño horrek? Zela adierazten dITU marrazkilarixak emoziño horrek?
(gorputzaren atalak, posturak, ...)

A



B




C

(Marrazkilarixa "Quino" ezizenaz ezagutzen dogu. Mafalda ezagunaren sortzaillia)




Emoziñuak eta mobimentuak

Hauexek dira Frato marrazkilarixak bere komikixak sortzeko jarraitzen dituan pausuak:



Nere pertsonaje guztiak perfil bera daukate, beti—diño Fratok

Eta bakar-bakarrik illiagatik bereizten dira.



Aurpegiko espresiñuak (poza, miña, amorrua, ...) sortzen dira begixak, bekaiñak eta ahoaren espresiñua konbinatuta.



Mobimentua irudikatzeko oso ondo ezagutu bihar dugu gorputza, eta ondo marraztu bihar dittugu mobitzen diren atalak. Komeni da jendia arretaz begiratzea, eta marrazki asko egittia. Marratxuak laguntzen doskue mobimentua adierazten.



Laguntza barik jatzten naiz

- 1- Laguntza barik jantziko naiz.
Lehenengo kuleruak/galtzonzilluak
jantziko dittut.
- 2- Lurrian jarritta errazagua da.
- 3- Aupa, gerriraiño jasoko dittut,
horrela ez dira jausiko.
- 4- Orain galtzerdiak jantziko dittut.
Zer gertatzen jako galtzerdi honi?
Ezin dot jantzi...
- 5- Ah! Badakit, ez da hanka honetakoa!
- 6- Hanka honetakoa da. Orain bai,
jantzi dot.
- 7- Orain alkondaria jantziko dot. Ez,
ez, itzulikaldera jantzi dot.
- 8- Botoi bakoitza bere botoi-zulotik
pasa... Lortu dot!
- 9- Orain jertsia jantzi bihar dot.
Baiña, nun dago mahuka?
- 10- Burua ez da sartzen. Kontxo! Zelako
berua hemen barruan!
- 11- Ondo, ixa jantzitta nago.
- 12- Orain prakak jantziko dittut. Ze
luziak diren praka honek!
- 13- Zapatak jantziko dittut eta kitto.
- 14- Ene! Lokarrixak lotu bihar dittut.
- 15- Ama, lagundu!!!!!!!!!!!!!!!!!!!!



BIHETZ-MATEMATIKIA



Erloju digitalak ezagutzen ditzuzue, ezta? Baiña, badakizue zer esan nahi daben “digital” hitzak?


“Digitus” hitzetik dator, eta “digitus” hitzak, latinez, “hatza edo bihetza” esan nahi dau. Eta kontatzeko eta batuketak egiteko bezala, biderketak egiteko be erabili geinze bihetzak.

Hortaz, biderkatzeko taulak ez badituzu oso ondo gogoratzen, probau metodo hau:

ZER EGIN BIHAR DA?

Jarri esku bixak zure aurrian, esku-barruak gora begira., eta bihetz bakoitzari zenbaki bat emongo dotsagu.

Bihetz lodixei 6 zenbakixa jarri, erakuslei 7xa, bihetz luziei 8xa, nagixei 9xa eta bihetz txikixei 10a.



Trukua ondo menderatu arte zenbakixak bihetzetan idatziko nittuzke...

Ondo egin badozue, 10 zenbakiko bihetzak elkarren onduan egongo dira.

Biderketak egitteko:


1. Adibidez, 7×8 egitteko, 7 eta 8 zenbakixak dauzkaten bihetzak elkartu bihar ditzuzu.
2. Kontau zenbat bihetz gelditzen diren bihetz horren gainian (eurak bixak be bame). Horixe da hamarrekuetan jarri biharreko zenbakixa.
3. Biderkatu bihetzen azpitan gelditzen jatzuen bihetzak. Horixe da bataren tokixan jarri biharreko zenbakixa.

Zein emaitza lortu dozue? 56 ez? Ba orduan, atzera egin eta berriro saiatu. 56 lortu badozue, probau ondorengo biderketak: 6×10 eta 6×7

Lortu dozuela uste badozue, eskatu irakasliari erantzun orrixa.







BIHETZ-MATEMATIKIA




GOGORATU:

Gaiñian darenak batu.
Azpixon darenak biderkatu.



$4 \times 0 = 0$



$4 \times 3 = 12$



Lexikua

Gorputzaren atalak:

Burua: kokotia, illia, belarrixak,

Aurpegia: bekokixa, bekainñk, begixak, betilliak, sudurra, ahua, ezpaiñak, matraillak, okotsa,

Lepua

Gorputzaren atzealdia: soinburua, sorbaldia, klabikulia, bizkarrezurra, gerri-ingurua, gerrixa, mokorra, ipurdia, ipurtaldia, ipurmatrila/ipurratala/ ipurmamiñak, ipurdiko erretena, ipurzulua, ipurtxintxurra,

Gorputzaren aurrealdia: galtzarpia/besapia, bularrak, titixa, titiburua, saihetsak,abela, barrabillak, zakilla, alua.

Besuk: ukalondua, eskumuturra, eskua, esku-barrua, esku-gaiña, atzamarrak, ukabilla.

Hankak: hankartia, iztarrartia, iztarguena, iztarra, belaunburua, belauna, zankabia, bernia, bernamamiña, bernazurra, orkatillia, orpua, oiñazpixa/hankapia, hanka-gaiña, ,...

Posturak:

Zutik, jarrita, belauniko, kukumixo (kokoriko), etzanda, ahoz gora, ahuzpez (ahoz behera), trabeska, ziarretara, ziarretzinka, hankaz gora, ipurdiz gora, zintzilik, lau hankan...

Mobimentuak:

Ibilixan egittekuak: oiñez ibilli, pausuan ibilli, antxintxika egin, trotian ibilli/laukuan ibilli, trostan egin, txandorrika ibilli, saltoka ibilli, ixo, jaitsi, labandu, txatxilipurdi egin, txilipurdi egin, arrastaka ibili, lau hankan ibili, ...

Geldixan egittekuak: bultza egin, bota, jaurti, biratu, tolostu, luzatu, makurtu, kuxkurtu, bildu...

Esku mobimentuak: hartu, eutsi, heldu, obatu, askatu, libratu, jare egin, kolpatu, jo, jaurti, estutu, jaso...



LEXIKUAREN AZALPENA (Juan Martín Elexpururen hiztegitik etaratakua)

Anka geldixan	Hankak mugitu gabe, boletan edo beste zerbaitetan (jokatu). <i>Anka geldixan irabaziko lostake arek neri.</i> Baita, abiadarik hartu gabe. <i>Anka geldixan iru metroko saltua eitten zeban.</i>
Ánkape.	ánkapia. (b). <i>iz.</i> Hanka azpia. • La planta del pie. <i>Itzia sartu jat ankapetik.</i> Sin. ankazpi. Ant. ankagaiñ.
Antxintxika egin, aintxintxika. AINTXÍTXIKA, ANTÍTXIKA eta ANTÍNTXIKA ere bai.	Korrika. • Corriendo. <i>Aintxintxika etorri naiz ikastolatik.</i> Ald. aintxintxiketan. (a). <i>Ixa egunero ikusten dot aintxintxiketan.</i> Gaurko umeak "korriketan" eta halako asmazioak esaten hasi dira. Sin. aintxintxiketan, antxintxiketan. lk. trotian.
Atzamar	ATZÁMAR, atzamárra. (a). <i>iz.</i> Dedo. Biatz edo bietz ere erabiltzen da, baina badirudi eskukoak izendatzeko atzamar edo atzapar gehiago esaten dela. Dena dela, hemen ez da egiten atzamar eta bietzen arteko diferentziarik.
Atzapar	lk. atzamar.
Áuzpez.	(b). <i>adb.</i> Ahoz behera. • Boca abajo. <i>Auzpez ipiñi nindduan da egundoko masajia emun zostan./ Umiak auzpez eitten dabe lo.</i>
Belaunbiko. (a). Adb.	De rodillas. <i>Belaunbiko egon nitzan kastigauta.</i> BELAUNBIKO JARRI. (a). Arrodillarse. <i>Oiñ belaunbiko jarri ta errezau.</i>
Belaunbúru, belaunburúa. (c). Iz.	Rodilla, extremo de la rodilla. <i>Belaunburua aundittuta daukat.</i>
Bérna, bernía. (b). Iz.	Pierna (desde la rodilla al pié). <i>Berna igar igarrak dauzka.</i>
Bernamamiñ, bernamamiña. (d). Iz	. Pantorrilla. DON. Pantorrilla entzuten da gaur, baina DON.k bernamamiñ eta zankumamiñ esan digu.
Bernázur, bernazúrra. (b). Iz	. Tibia, peroné, o ambas. <i>Bernazurra apurtu dau.</i>
Bésape.	1. bésapia. (c). <i>iz.</i> Sobaco. <i>Besapiak urratuta dauzkat.</i> Sin. galtzarpe (erabiliagoa). 2. (d). <i>adb.</i> A sobaquillo; movimiento del brazo por debajo del hombro. <i>Arrixa besape botatze juan dotore asko./ Kastillanuk pelotan besape jokatzen dabe.</i>
Bíetz, biétza. (a). Iz. Biatz ere bai. Behatza. •	Dedo, tanto de la mano como del pie. Berezi nahi direnean, ankako bietz edo eskuko bietz. BIÉTZ-ÁUNDI, biétz-áundixa. (a). Pulgar, dedo gordo. Sin. BIÉTZ-POTÓLO, biétz-potolúa. BIÉTZ-TXÍKI, biétz-txikíxa. (a). El dedo pequeño. ERDÍKO BÍETZ, erdíko biétza. (b). Dedo medio, corazón. lk. atzamar.
Bizkarrázur,	Espinazo, columna vertebral. <i>Arbolatik jausi tta bixkarrazurra apurtu.</i>
Ekúbill. Ekubílla.	IKÚBILL eta UKABIL ere bai. • Puño. <i>Ik atzo zetan erakutsi ostan neri ekubilla?</i>
Ekúlondo, ekúlondua.	Codo. <i>Ekulondoko miñez nago atzotik.</i> Ald. UKÓLONDO, ukólondua. (c). UKÓNDO, ukóndua. (Ang.).
Esku-bárru, esku-barrúa.	La palma de la mano. <i>Esku-barrua erre dot.</i>
Eskú-gaiñ, esku-gáiña. Eskuaren gainaldea. •	La parte superior de la mano. <i>Bizikletatik jausi tta esku-gaiña urratu jako.</i>
Eskumútur, eskumutúrra.	. Muñeca. <i>Eskumuturra be esan oi dok, baiña eskuturra guk geixao.</i> DON./ <i>Bizikletatik jausi tta eskumuturra apurtu dau.</i> Sin. ESKÚTUR, eskutúrra. (a). Gehiago erabilia.
Gáltzarpe. Gáltzarpia.	. Sobaco. <i>Galtzarpiak urratuta dauzkat./ Galtzarpian zaroian peridikua./ Berakatza galtzarpian ipiñi, da kalenturiak ixotzen i zotsan.</i> KLEM. Sin. besape.



Ipurdíko erréten, ipurdíko errétena.	(c). iz. Ipurmasaila bien arteko harana. • El valle existente entre los dos glúteos. <i>Granuak urten doste ipurdíko erretenian.</i>
Ipurmamiñ, ipurmamiñak.	Nalgas. <i>Azelakotxe ipurmamiñak dauzkan.</i> Pluralean batez ere. Ik. ipurratal.
Ipurmatráilla, ipurmatraillía.	Ipur-masaila. • Glúteo. <i>Mekauen, iri asi jak ipur-matraillak./ Adarra sartu zotsan ezkerreko ipur-matraillan.</i> Sin. ipurratal.
Ipurrátal, ipurratála. (c). Iz	Glúteo. <i>Granuak urten doste ezkerreko ipurratalian.</i> Ipurratal ipurdiaren zati bakoitza, ipurmamiñ , berriz, multzo osoa. Sin. ipurmatrailla.
Ipurtálde, ipurtaldía. (c). Iz. Ipurdi aldea. •	El culo, la zona de las nalgas. <i>Zapatilliakin emun dotsa amak eta eztau otzik izango ipurtaldian./ Azelakotxe ipurtaldiak dauzkan</i>
Ipurtázur, ipurtazúrra. (c). Iz.	Ipurdiko hezurra.
Ipurtxíntxur, ipurtxintxúrra	IPURTXÓNTXOR eta IPURTXÚNTXUR ere bai. Ipurzintzurra. • El coxis. <i>Artu dot zartara bat ipurtxintxurrian mai ertza jota...</i>
Iztárgoen, iztárgoena. (d). Iz	. DON. Iztar barnearen goi aldea. • Parte superior del interior de la pierna. Ingle? Kanpokaldeari egal.
Kukúlumixo.	1. (d). <i>adb.</i> Kukilduta, kuxkurtuta. • Encogido por miedo, frío, etc. <i>Geldik baldin badago ola, kukilduta: kukulumixo dao.</i> DON. 2. (d). <i>adb.</i> En cucullas. Ik. kukumixo.
Kukúmixo. Kukúlumixo ere bai. Kokoriko.	Makurtuta, kakaginan bezala. • En cucullas. <i>Pastoriak orduak egoten die kukumixo.</i> KLEM. Baita KUKÚMIXOKA: Kukumixo(ka) egon, jarri.
Kuxkúrtu. Kixkúrtu eta kizkúrtu ere bai.	Kokildu; hotzez edo beldurrez, batik bat. • Acurrucarse o encogerse de miedo o frío, principalmente. <i>Negu guztia otzak ziero kuxkurtuta pasau jonat.</i> Sin. kokilddu.
Lau ankán	A cuatro patas. <i>Zeukan mozkorrakin lau ankan aillegau zan etxera.</i>
Matráilla, matraillía.	Carrillo, moflete, mejilla. <i>Gizon bapua dago matrailla ederrekin.</i>
Matraillázur, matraillazúrra.	. Mandíbula. <i>Matraillazurra apurtu zotsan ekubilkara batekin.</i>
Mokor	MÓKOR, mokórra. (c). iz. Cadera. <i>Klinikan dago mokorra apurtuta.</i> Ik. ijera.
Oiñ	OIÑ. 1. óiña. (d). iz. Pie, la largura de un pie, usada como medida de longitud por los baserritarras. <i>Gomozkortako gizon kapritxosu orrek. etorri Egixa-barrenera ta kontau ei zittuan oiñak. Lau kantoetara, Egixan. Da etxera jun da arotzei esan ei otxen: Onenbeste oiñ da Egixa. Lau kantoetara biña oiñ geixao Gomozkortak. Sendo. Aor ba.</i> HIL. Sin. oinbete. 2. óiña. (d?) iz. Oiñetako, oiñez, etab. arruntak diren arren oiñ (hanka zentzuan) nekez entzuten da.
Óiñutsik. (b). Adb.	Descalzo. <i>Ezta arri gaiñian oiñutsik ibilli biar.</i> Sin. ortosik, ankautsik, oingorri utsetan (gutxiago erabiliak).
Ókotz, okótza. (a). Iz. Kokotz ere entzun daiteke inoiz.	Barbilla, mentón. <i>Garbituizu okotza, arrautzia agiri dozu ta.</i> OKOTZÉRAIÑOKO TRIPÍA. (c). <i>esap.</i> Tripa handia. Haurdunaldikoagatik batik bat. <i>Okotzeraiñoko tripiakin, da artian souan atxurran.</i>
Ókozpe, ókozpia.	Papada. <i>Kantuan ziarduan kanoniguak okozpe guri-gurixakin.</i>



Orkátilla, orkátillia	Tobillo. <i>Orkatillia okertu jat zuluán sartuta.</i>
Órpo.	1. orpúa. (a). iz. Talón. <i>Orpoko miñez nabill.</i> 2. orpúa. (d). iz. Arbola eta landareen oina, ipurdia. • Pie de plantas y árboles. <i>Larrosa orpuan trabau ta muturrez aurrera jausi nitzan.</i> Badu, baita fruta arbola unitate zentzua ere. Sagar-orpo eta gipuzkerako sagar-ondo gauza bera dira. <i>Gure Uesandixan berrogei sagar-orpotik gora egongo da.</i> Baina hau ia bakarrik kopurua adierazterakoan, edo arbola-oina indikatzerakoan esaten da. Bestela sagar-arbola, piku-arbola... eta normalean sagarra, pikua, keixia... soilik. Ik. maats-orpo.
Sáiets.	saiétsa. (b). iz. Costilla. <i>Arbolatik jausi tta iru saiets apurtuittu.</i> SÁIETSETAKO, saietsetakua. (c). iz. Saihetsetako golpea. <i>Nik artu juat saietsetakua manibelakin.</i>
Sonbúru, sonburúa. (d). Iz. Soinburua	. • Hombro. Ald. SORBÚRU, sorburúa. (d). <i>Sorburua dok pa puntu bat, da sorbaldia esaten jakok gain danai.</i> DON. Ik. sorbaldia.
Sorbálda, sorbaldía. (b).	iz. Hombro. <i>Ezkerreko sorbaldan daukat mina.</i> Harri edo zaku bat bizkarrera jasotzen da eta ez sorbaldara. Toribio Etxebarriak "homóplato" dio. sorburu edo sonburu ere deitzen diote askok. DON.k dio sorburu puntu bat dela (ertza?) eta sorbaldia gain guztia. (?). Ald. SOLBARDA, solbardía. (d). <i>Solbardia etara ein ddot.</i> DON. Ik. bizkar, lepo, sonburu.
Trábesetara. (c). Adb. Zeharka. •	Horizontalmente, de lado a lado. <i>Zure kotxiak enbellezedoria dauka trabesetara./ Trabesetara bajau giñuan aldapia./ Patinau ta trabesetara jarri jatan kotxia.</i> Sin. trabeska, ziarka, ziarretara.
Trábeska	. (c). adb. Ik. trabesetara.
Tróte, trótia (c). Iz. Antxixika-saioa. •	Trote. <i>Polizia atzetik giñuala, guk eruan giñuan trotia.</i> TROTE EIÑ. (b). du ad. (adkor.). Escapar corriendo. <i>Laga poltsia ta trote ein zeban mutikuak eskolatik.</i> TRÓTIA EMUN. (c). Asko erabili. <i>Egundoko trotia emun dotsat jertse oni.</i> TRÓTIAN. b). adb. Al trote, al galope, corriendo. <i>Ez ibilli trotian etxe barruan./ Trotian zoian astua.</i> Ik. pausuan, laukuan.
Txándorrika.	. Hanka bakarka harri bati kuadroz kuadro bultza egitean datzan antzinako neska jolasa. • Juego de niñas consistente en empujar de cuadro en cuadro una piedra a la pata coja. <i>Txandorrika ero txindurrika, ola kuadro batzuk itte zittuan, una-dos-tres, eta gero bi ale banatan, da ankiakin, arraian eztailla geratu, arritxo bat erabiltze zuan, arraia ikutze zebanak galdu itte zeban da...; gure gazte-denporan ume danak itte juen.</i> KLEM. TXANDORRIKA IBILLI. KLEM.k dionez txínbili! esaten omen zen jolasa hasterakoan eta txónbolo! onez burutzen zenean. Sin. txindurrika, txintxurriska.
Txilípurdi, txilípurdixa.	(d). iz. Burua lurrean jarrita emandako buelta. <i>Gola sartzen daben bakoitzian txilipurdixa —edo txilipurdi— eitten dau.</i> TXILÍPURDIKA (c). adb. Dando vueltas con la cabeza apoyada en el suelo. <i>Makiña bat txilipurdika eitten giñuan ganauzaiñian./ Arantzan trabau eta txilipurdika jausi zuan mugan bera.</i> Ik. txirrinboletaka.
Ukabilkada	Puñetazo.
Ukolondo, ukondo.	Ik. ekulondo.
Zánkabe, zánkabia. (c). Iz	. Belaunaren kontrakoaldea. • Corva. <i>Zankabietako miñez nabill aspalditxuan.</i>
Ziár-étzinka.	Zehar-etzanka. • Apoyado Ziarretzinka orri; ola baztarren baten kontra, arbolian kontra baldin badago: <i>"ziarretzinka jarritta euzki-epela artzen majo dago ori".</i> DON. ZIÁR-ÉTZINKA JARRI: Apoiatu.
Ziarka.	1. (c). adb. Zeharka, zeharretara. • De lado, de través, ladeando, en zigzag. <i>Ziarka-ziarka eruan giñuan kutxia tataras./ Zuzenian jatxi biarrian ziarka jetxi giñuan aldapia.</i> Sin. ziarretara, trabesetara

Zure moduan/Zuk bezala egingo dot...



	<p>(agian erabiliagoak zentzu honetan).</p> <p>2. (b). <i>adb.</i> Zeharka, ez modu zuzenean. Irudizkoetan, batik bat. <i>Eztau garbi esan baiña ziarka bai./ Kontuz orrekin ziarka begirutzen dau ta.</i></p>
Ziarretara.	<p>ZÍARRETARA. (b). <i>adb.</i> Zeharretara, zeharka, trabesetara. • De lado, de través, ladeando, en zigzag. <i>Lenego jo zuzen gora ta gero ziarretara./ Zuzenian igo biarran ziarretara jo ezker gutxiao kantsatzen da. Aldapa handia denean ziarretara igotzea komeni izaten da. Sin. ziarka, trabesetara. Ik. zuzenian.</i></p>

Zure moduan/Zuk bezala
egingo dot...

